

ELKAR EZAGUTZEN

Elkarrizketa¹

Dinamika honen helburua da ikasleen arteko elkar-ezagutza handiagotzea eta elkarren arteko harremanak hobetzea.

Egiten hasi baino lehen, irakasleak adieraziko du zertarako egingo duten eta zer lortu nahi den, baita errespetuzko giro batean egingo dutela, guztion iritzia eta gustuak errespetatuta, pertsona guztiek askatasuna izan behar dutelako beren zaletasunei buruz hitz egiteko.

Parte-hartzaile bakoitzak zenbaki bat dauka. Poltsa batetik zenbakiak aterako dira ausaz, binaka, taldea bikotetan banatuta gera dadin, eta, beharrezkoa izanez gero, hiruko talde txiki batekin.

Dinamika honen lehenengo fasean bikote bakoitzeko kideek elkar elkarrizketatuko dute beren trebeziei, gaitasunei eta akatsei buruz, aldez aurretik erabaki duten galdetegi txiki batetik abiatuta.

Elkarrizketarako galdera batzuk hauek izan litezke:

- ✓ *Non bizi zara? (auzoa, kalea...)*
- ✓ *Zein da zure gustuko gauza eskolan?*
- ✓ *Eta gutxien gustatzen zaizuna?*
- ✓ *Zein da zure zaletasun handia aisialdian?*
- ✓ *Zein da zure gustuko musika?*
- ✓ *Komikiak gustuko dituzu?*
- ✓ *Eta zinea?*
- ✓ ...

Bigarren fasean, parte-hartzaile bakoitzak kidearen oinarrizko ezaugarriak laburbiltzen dituen esaldi bat idatzi behar du, elkarri adieraziko eta zuzenduko diote, egoki baderitzote.

Azkenik, hirugarren fasean, bakoitzak elkarrizketa-kidea nolakoa den adieraziko dio talde osoari.

Jarduera hau behin baino gehiagotan egin daiteke, elkarrizketan erantzun beharreko galderen izaera aldatuta: dinamikaren ondorengo aplikazioetan gero eta galdera sakonagoak edo pertsonalagoak planteatu daitezke.

Jarduera egin eta gero tarte bat izango dute balorazioa egiteko:

- ✓ Zer egin dugu ondo?
- ✓ Zer hobeto beharko dugu?

Irakasleak jasoko du ikasleek esaten dutena eta hurrengo saioan gogoraraziko die.

¹ Pujolas, P. eta Lago, J. R. (Koord.): *IK/KI PROGRAMA («Ikasteko Kooperatu / Kooperatzen Ikasi»)* TALDEAN IKASTEN IRAKASTEKO Ikasketa kooperatiboaren inplementazioa ikasgelan.